



DEBAKO UDALA

## BANDOA

**Debako hirigunean bizi diren herritarrei jakinarazten diegu kalean jarduera fisikoa egiteko baldintzak arautzen dituen Osasun Ministerioaren Agindua:**

**Nortzuk: 14 urtetik gorako pertsonak.**

**Bizikide bakarrarekin joan ahal izango da**, edo etxeko langile batekin edo ohiko zaintzailearekin. Ezingo dira irten sintomak dituzten pertsonak, etxean edo berrogeialdian isolatuta daudenak, ez eta adinekoen zentro soziosanitarioetan bizi direnak ere.

**Zer: Hirugarrenekin kontakturik behar ez duen banakako edozein kirol, bai eta paseoak ere**, besteekiko gutxienez bi metroko tartea mantenduz.

**Non:**

- **Paseoak** (paseoak bakarrik) **etxetik kilometro batera** egingo dira, gehienez ere.
- **Banakako kirola:** (kirola bakarrik) **Debako udalerrri osotik** egin ahalko da, erabilera publikoko bideetan edo espazioetan, baimendutako natur guneak eta berdeguneak barne. **Itziarko Kaskotik pasatzea ekidingo da.**

Ezin da kirol-instalazio itxietan egin.

**Ezingo da ibilgailu motordunik edo garraio publikorik** erabili jarduera fisikoa egitera joateko.

**Noiz: Egunean behin bakarrik**, gehienez ordubetekoa izatea gomendatzen da, **06:00etatik 23:00etara.**

ALKATEA



Deban, 2020ko maiatzaren 1ean